ASTEKO GAIA: *Astekari jaioberri baten historia laburra* /3

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2000ko abenduaren 8a • I. urtea • 2. zenbakia

DOAN BANATZEKOA



Goienka2a
BIG LIE: kultura eskaintza alternatiboa Oñatin

Herriz herri
Garzonek bi debagoiendar inputatu ditu AEKren kasuan /4

Kirolak
Juanina Garai, Bergarako futbol entrenatzailea /10

Elkarrizketa
Jabier Gantxegi, Fagor Elektratresnak-eko lehendakaria /9

Villasanteri azken agurra

Euskaltzainak, agintariak eta herritar xeheak, denetarikoak, hileta elizkizunetan

Euskalgintzako jendea, agintariak, baina baita herritar xeheak ere Era guztietakoak elkartu ziren astelehenean Arantzazuko santutegian, Aita Luis Villasanteri azken agurra emateko. Euskal Herriko bazter guztietako jendea joan zen hileta elizkizunetara. Hantxe izan ziren, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Roman Sudupe diputatu nagusia, Txillardegi idazlea, eta euskaltzain izandakoa, Jean Haritxelhar euskaltzainburua edota Juan San Martin, euskaltzaina hau ere.Eta eurekin batera, hainbat debagoiendar ere.



Luis Villasante.

Luis Villasante Gernikako Ajangiz auzoan jaio zen duela 80 urte. Arantzazuko frantziskotar guztiek bezala, Arantzazun, Oliten, Foruan eta Comillasen ikasi zuen. 1945ean esan zuen lehen meza. Ikasten ari zela, euskaltzaletu eta euskaraz idazten hasi zen. 1952an euskaltzain oso egin zuten, eta 1970ean, berriz, euskaltzainburu. Hemezortzi urtean izan zuen Aita Villasantek kargu hau.

Euskara batuaren sorreran lan handia egin zuen, Koldo Mitxelenaren laguntzaz. Horregatik, batek baino gehiagok "euskara batuaren aita" deitzen diote.

Luis Villasante zapatuan hil zen. Alzheimer gaitza zuen. Arantzazuko kriptan ehortzi zuten astelehenean, hileta elizkizunen ondoren. /4

Zertzelada

"Arantzazu eta Oñatiri buruzko lan oparoa laga digu, artikulu eta liburuetan"

JERARDO ELORTZA

San Nikolas Arrasaten



MARIJO DEOGRACIAS

SAN NIKOLAS. "San Nikolas, coronado; Arzobispo mariandres; a la luna, noshesia; Etxekoandre noblia; Egizu egizu pillia". Eta gozoki pila ederra egin zuten Arrasateko neska-mutikoek eguaztenean.

San Nikolas boloa ospatu zuten eta urtero bezala etxerik etxe ibili ziren litxarreriak eskatzen. Eguerdiko 12,00etan, berriz, guztiak herriko plazara joan ziren udal ordezkariek jaurti zizkietenak jasotzeko.

Akordeoi lehiaketa ari dira jokatzen Arrasaten

Azken ekitaldia egubakoitzean izango da

Martitzen goizean hasi zen Arrasaten Nazioarteko VIII. Lehiaketako lehenengo kanporaketa. Martitzenean gerturatu ginen Amaia antzokira Gipuzkoako XXI. Lehiaketako lehenengo kanporaketa ikusteko.

Abenduaren 8a arte jokatuko dira Arrasate Akordeoi Lehiaketak 2000 Amaia antzokian eta hiru sari banatuko dira. Azkenengo ekitaldia egubakoitzean, hilak 8, izango da, 11:30etik aurrera.

Argazkian duzuena Elisa Gonzalez da, hamar urteko Valladolideko neskatila. /16



Elisa Gonzalez. MADDI TRUTXUELO

Atzeratu egingo da Aretxabaletako etxebizitza sozialen eraikuntza

Bedarreta auzoan Aretxabaletatik Arrasatera bidean hamalau etxebizitza sozial egiteko asmoa dauka Aretxabaletako udalak. Baina, arazo bat sortu da: etxeak egiteko bota behar den Kaminerokua baserria ondare historiko izendatu du orain dela hilabete inguru Eusko Jaurlaritzak. Arazo horrek epeak atzeratu egingo ditu. Kaminerokua baserria ez botazea erabakitzen badute, diru inbertsio handia eskatuko luke, ez dago eta egoera onean. Bi proiektuak bateragarriak izan ezean, bestalde, etxebizitza sozialek izango dute lehentasuna. /5

Azbe®
"Segurtasuna bermatzen dugu, lasaitasuna eskaintzen dugu"
Basabe, 3 - 20550 ARETXABALETA
Tel: 943 712 929

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • ESKELAK/8 • KIROLA/10 • NON ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ZERBITZUAK/20 • TELEBISTA/22

Arrasate erdi-erdian

ibai-arte

Zure dendak

Urrats . . . . . Aholkularitza
Ehune . . . . . Altzariak-apaintzea
Etxe Mobiliario . . . . . Altzariak-apaintzea
Eya Sukaldeak . . . . . Altzariak-apaintzea
Oihana . . . . . Apaintzea
Epelde . . . . . Argazki denda
Foto Imagen . . . . . Argazki denda
Ikatz . . . . . Argazki denda
Tomas . . . . . Arrandegia
Phildar . . . . . Artile denda
Seguros Elorza . . . . . Aseguruak
Kutxa . . . . . Banketxea
Euskadiko Kutxa . . . . . Banketxea
La Caixa . . . . . Banketxea
Tokion . . . . . Bazarra
Eroski Bidaiak . . . . . Bidaia agentzia
Karmele . . . . . Bitxitegia
Zubiaga . . . . . Bitxitegia
Aldedi . . . . . Burdindegia
Arregi . . . . . Enmarkazioak
Artea . . . . . Enmarkazioak
Aranzabal . . . . . Etxetresna elektrikoak
Eya . . . . . Etxetresna elektrikoak
Milar Elkoro . . . . . Etxetresna elektrikoak
Hemen . . . . . Gozotegia
Muruamendiaraz . . . . Gozotegia
Onandia . . . . . Gozotegia
Landaluze . . . . . Harategia
Otamendi . . . . . Harategia
Parlance . . . . . Hizkuntza akademia
JG Impresión Digital . . Inprimategia
Anboto . . . . . Inmobiliaria
Izozkitegi . . . . . Izoztegia
Feli janari denda . . . . Janari denda
Erosle . . . . . Janari denda
Kili-Kolo . . . . . Jantzi denda
Belem . . . . . Jantzi denda
Maza . . . . . Jantzi denda
Flash . . . . . Jantzi denda
Gili-Gili . . . . . Jantzi denda
Haurtxoa . . . . . Jantzi denda
Klas . . . . . Jantzi denda
Laket . . . . . Jantzi denda
Lasagabaster . . . . . Jantzi denda
Los Vaqueros . . . . . Jantzi denda
Luko . . . . . Jantzi denda
Mabel . . . . . Jantzi denda
Marga . . . . . Jantzi denda
Markiegi . . . . . Jantzi denda
Troko . . . . . Jantzi denda
Ume . . . . . Jantzi denda
Z-R . . . . . Jantzi denda
Zur-Lur . . . . . Jostailuak
Arrasate Kirolak . . . . . Kirol denda
Okendo Kirolak . . . . . Kirol denda
Uriarte Sport . . . . . Kirol denda
Hire . . . . . Larrukiak
Ariane . . . . . Lentzeria
Bea . . . . . Lentzeria
Nerea . . . . . Lentzeria
Sikol . . . . . Lentzeria
Titare . . . . . Lentzeria
Altuna . . . . . Lurrindegia
Lore . . . . . Lurrindegia
Zabaleta . . . . . Lurrindegia
Zarraoa . . . . . Lurrindegia
Ceciaga . . . . . Mertzeria
Lilura . . . . . Oihalak
Alonso . . . . . Oinetakoak
Beatriz . . . . . Oinetakoak
Egizabal . . . . . Oinetakoak
Totem . . . . . Oinetakoak
Txikiak . . . . . Oinetakoak
Txuntxurunberde . . . . Oinetakoak
Yoar . . . . . Oinetakoak
Zabala . . . . . Oinetakoak
Zubia . . . . . Oinetakoak
Beinke . . . . . Opari denda
Galeria 44 . . . . . Opari denda
Garay Saskiak . . . . . Opari denda
Garagorri . . . . . Optikak
Tamayo . . . . . Paper denda
Portaloi Kioskoa . . . . . Prentsa /aldizkariak
Kajoi . . . . . Taberna
Lorategi . . . . . Taberna
Monte . . . . . Taberna

ARRASATEKO IBAI-ARTE DENDA ETA ZERBITZU ELKARTEA

Goienkaria, *kalean!*



Joan zen egubakoitzean banatu zen *Goienkaria*ren lehen alea. Oro har, oso harrera ona izan du eskualdeko herri guztietan etxez etxe banatu den astekariak. Debagoiendarren informazio beharrei erantzutea da gure erronka.

1 Eguen eguerdian, bukatuta

Eguen eguerdian bukatu eta Iruñera eraman zen, *Diario de Noticias* eta *Euskaldunon Egunkaria* inprimatzen den errotatibara, hain zuzen. Nekatuta, baina irribarretsu, erredakzio taldeak argazkia atera zuen (batzuk falta dira).

2 Bi ordutan, inprimatuta

Pare bat ordutan 20.000 ale inprimatu zituzte. Aleok multzotan banatu eta Iruñeatik Debagoieneko herri guztietara ekarri zituzten egubakoitzean.

3 Aurkezpena

Arrasateko Uarkape pilotalekuan aurkeztu zen. Eneko Azkarate *Goienkaria*ko zuzendariak, Estepan Plazaola Goienako lehendakariak eta Mikel Irizar zuzendari nagusiak azaldu zituzten Goienaren eta *Goienkaria*ren nondik norakoak. Aurkezpenean euskara elkarteetako ordezkariak, herri hedabideetako langileak, Jabier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektorea, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea eta Joxerra Agirreurreta Leintz Gatzagako alkatea izan ziren, besteak beste.

4 Extra, extra!

Debagoienera heldu orduko, zain zeuden *Goienkaria* jaioberriari gainbegirada emateko. Ikusmin handia sortu du eskualdeko astekariak.

5 Etxez etxe

Debagoieneko etxeetan banatu zen. Herri aldizkaria duten herrietan, hauen gehigarri.

6 Informazio guztia, zure eskura

Herri aldizkarien eskaintza osatu eta eskualdeko bizilagunen intereskoak izan daitezkeen gaiak landuko ditu *Goienkaria*k. Informazio guztia, astero, zure eskura.


ENEKO AZKARATE



MIKEL ALBERDI




DIARIO DE NOTICIAS



MONIKA BELASTEGI



ITXARO ARTOLA



IRATXE BENGOA



ENEKO AZKARATE

Zer deritzozu Goienkariari?



Martxelo Otamendi
EUSKALDUNON EGUNKARIA
Zuzendaria

Egubakoitzean, kaleratu zen egunean, Arrasaten izan nintzen, Uarkape pilotalekuan; eta sartu aurretik taberna batean ikusi nuen *Goienkaria*. Polita iruditu zaitzaidan, interesgarria. Formatu aldetik, berria, jendea ez dagoelako ohituta herri aldizkariak formatu horretan ikusten eta, alde horretatik, badu bere arriskua.


"Herri astekari izateko formatu berria du, eta hori arriskutsua da"



Martin Garitano
GARA
Zuzendari albokoa

Inpresio ona eman dit *Goienkaria*k, bai itxura aldetik -diseinu landu eta modernokoa iruditu zaidalako-, baita eduki aldetik ere. Horrelako ekimenak beharrezkoak dira eta oso egokiak nortasun propioa duten eskualdeetan bereziki. Debagoienak badu nahikoa masa kritiko, kazetari eta aditu honen moduko egitasmoak aurrera ateratzeko.


"Diseinu landu eta modernokoa iruditu zait, gustatu zait"



Joseba Lezeta
ZABALIK
Erredaktoreburua

Ez dut irakurtzeko aukerarik izan, baina ikusi, ikusi dut, eta polita iruditu zait. Hala ere, hainbat zalantza sortzen zaizkit: bailarak nahikoa informazio sortzen du? Debagoiendar guztiei interesatuko zaizkie albiste horiek? Bestalde, formatua berria da herri aldizkariak etxean jasotzen dutenentzat, baina ohituko direla uste dut.


"Bailarak sortzen du nahikoa informazio? Hori da nire kezka"



Pello Zubiria
ARGIA
Zuzendaria

*Goienkaria*k egunkari bokazio garbia du. Horrek esan nahi du euskal prentsa etengabe garatzen ari dela. Herri prentsan *impasse* moduko bat nabaritzen dut eta egoera honetatik ateratzen diren bakarrak *Hernaniko Kronika* eta *Goienkaria* (Goiena) direla esango nuke.

"*Goienkaria*k egunkari bokazioa du, argi eta garbi"



Joxemari Muxika
TOPAGUNEA
Lehendakaria

Dotorea eta ikuspegi zabalekoa, hau da, era askotako iritziak jasotzen dituena, iruditu zait. Bestalde, Topaguneak uste du tokian tokiko komunikabideak eskualdeka antolatu eta landu beharko liratekeela, biztanle eta merkatu kopuru handiagoari egokiago aurre egiteko. Horretan, bat egiten du *Goienkaria*rekin.

"Forma aldetik dotorea da eta iritzi aniztasuna erakusten du"

OÑATI — EUSKARA BATUAREN BULTZATZAILE NAGUSIENETAKOARI, AGUR


Aita Luis Villasantek zapatuan utzi gintuen

Euskalgintzako eta instituzioetako ordezkariak lagun, astelehenean izan ziren hileta elizkizunak

AINTZANE IRIZAR

Joan zen zapatu gauean hil zen Aita Luis Villasante, Arantzazun. Hileta elizkizunak, berriz, astelehen arratsaldean egin ziren Arantzazuko santutegian. Eliza bete-beteta zegoen. Jende ugari joan zen Aita Villasanteri azken agurra emateko: euskalgintzako jendea, agintariak, baina baita herritar xeheak ere.

Euskal Herriko bazter guztietako jendea joan zen Aita Villasanteren hileta elizkizunetara. Hantxe izan ziren, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Roman Sudupe diputatu nagusia, Txillardegi idazlea, eta euskaltzain izandakoa, Jean Haritxelhar euskaltzainburua edota Juan San Martin, euskaltzaina hau ere.



Arantzazuko santutegia leporaino bete zen. EDURNE KOCH

EUSKARA BATUAREN AITA

Luis Villasante Gernikako Ajangiz auzoan jaio zen duela 80 urte. Aita Burgoskoa zuen; ama, berriz, Aulestikoa. Frantziskotar gehienek bezala, Arantzazun, Oliten, Foruan eta Comillasen ikasi zuen. 1945ean esan zuen lehen meza. Ikasten ari zela, euskaltzaletu eta euskaraz idazten hasi zen. Ordutik, liburu eta artikulu asko idatzi zituen, gehienek erlijioa, gramatika eta euskal literatura ardatz zutela. *Euskararen Auziaz* izan zen azkenetarikoa.

1952an euskaltzain oso egin zuten, eta 1970ean, berriz, euskaltzainburu. Hemezortzi urtean izan zuen Aita Villasantek kargu hau.

Bi lan nagusi izan zituen Euskaltzaindiako buru zela: batetik, euskal akademia egunean jartzea, eta, bestetik, euskara batzea. Bere agintepean, lantaldeak eta batzordeak eratu, ordezkaritza gehiago ireki eta dirubideak ziurtatu zituen euskararen akademiak. Euskararen batasunari dagokionez, aurrera egin zuen, Koldo Mitxelenaren laguntzarekin, euskara estandar bat sortzen. Horregatik, batek baino gehiagok "euskara batuaren aita" deitzen diote.

> "Euskara batuaren prozesuan oso paper garrantzitsua bete zuen. Baina, beharbada ez da hain ezaguna Oñati eta inguruetaz egin zuen lana"



Jakina da Aita Villasantek euskaltzain bezala egindako lana zein garrantzitsua izan den. Baina, beharbada ez da hain ezaguna Oñati eta inguruetaz egin zuen lana.

Artikulu asko idatzi zituen aldizkarietan Arantzazuko toponimiaz, erromesen bideetaz eta inguruko hizkeraz.

Gesaltzako Graziano Anduagaz ere idatzi zuen liburua 1961ean: *Aitonaren uzta*. Grazianok Arantzazuko aldizkarian bertsoak idazten zituen. Liburuan, Anduagaren bertsoak, eta harek kontatutako pasadizoak eta gertaerak jaso zituen.

Arantzazu eta inguruko hiztegi bat ere eman zuen argitara. Horrela, Arantzazuko fraide batek hasitako lana bukatu nahi izan zuen; izan ere, Candido Izagirre frantziskotarrak hasi zuen lana, baina hil zenean bukatu gabe utzi zuen.

***Ritual Urrejolano* eskuizkribua ere argitaratu zuen. Eskuizkribu hau XIX. mendeko apaiz batek idatzi zuen. Iskribu horretan apaizei aholkuak ematen dizkie.**

Adibide batzuk besterik ez dira; asko izan dira Villasantek Oñati eta inguruetaz idatzitako artikulu zein liburuak.

JERARDO ELORTZA

BERGARA — JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN, EUSKARA BULTZATZEA HELBURU

Epaitegian hizkuntza eskubideak bermatzeko taldea sortu dute

AEK, EHE eta Jardun elkarteak bat eginik euskararen alde

MONIKA BELASTEGI

Plataforma AEK, EHE eta Jardun euskara elkarteak sortu dute eta helburua honakoa da: euskararen normalizazio bidean justizia administrazioak pausoak eman ditzala eskatzea. Plataformak joan den egubakoitzean egin zuen aurkezpena.

Aurkezpenean esandakoaren arabera, justizia administrazioak ez ditu euskaldunen eskubideak bermatzen, nahiz eta EAEn euskara hizkuntza ofiziala izan. Plataformako kideen esanetan, justizia administrazioan ez da euskara eginpide guztietan erabiltzen: "Euskara bigarren mailan dago", eta, ondorioz, herritarrek gaztelaniaz jardun beharra izaten dute herriko epaitegian. Egoera horren aurrean, eta Bergaran bailara osoa hartzen duen epaitegia dagoela kontuan izanda, AEK, EHE eta Jardun elkarteak plataforma sortzea erabaki dute Euskal Herriko beste herri batzuetako ekimenei jarraiki.

HAINBAT ATXIKIMENDU

Herriko hainbat talde, erakunde, ikastetxe eta banakoren atxikimendua lortu du plataformak. Besteak beste, Abokatu Euskaldunen Elkartearena eta udalarena; guztira, hamabostetik gora. Atxikimendua adierazi duten guztiek, aurrerantzean, Bergarako epaitegiarekin izango dituzten harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu dute. Udalak osoko bilkuran hartu zuen erabakia. EAJ, EA eta EH alde agertu ziren. PSE-EE alderdia, aldiz, abstenitu egin zen.

Plataformaren helburua Justizia Administrazioak euskararen normalizazioan urratsak ematea izanik, zazpi oinarri jarriko dituzte abian. Guztiak, aipatutako administrazioko langile eta esparruak euskalduntzeko.

TURISMO BULEGOA IREKITA

Aste honetako jai eta zubi egunak kontuan izanda, Turismo Bulegoa irekita egongo da datorren domeka arte. Ordutegia honakoa da: astegun eta zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era; domekan, 11:30etik 14:30era. Bulegoak beste eskaintzarik ere badu: herriko eraikin historikoak ikusteko bisitaldi gidatuak antolatzen ditu. Ez dago ordua aldez aurretik hartu beharrik bisitaldi hauetan parte hartu ahal izateko.

Zertzelada

Udalak bat egin du plataformaren helburuekin. Aurrerantzean epaitegiarekin dituen harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu du.

ANTZUOLA — GARZONEK ETA-REKIN LOTU NAHI DU AEK

AEKren aurkako auzian bi debagoiendar inputatuta

J.R. Aranguren ek astelehenean deklaratu zuen

AINTZANE IRIZAR

Baltasar Garzon epaileak, AEKren kontra irekitako sumarioaren barruan, Debagoieneko bi lagun deklaratzera deitu zituen, inputatu bezala: Juan Ramon Aranguren antzuolarra eta Itsaso Ojeda atxabaltarra joan zen astelehenean egon ziren Baltasar Garzon epailearean aurrean.

Garzon epaileak azaroaren 22an publiko egin zuen autoaren arabera, bertan inputatzen diren organismoak, eta, bide batez, organismo horietako kideak, ETAk diseinatutako estrategia baten tresna dira. Juan Ramon Arangurenen ustez, "epailearen tesi hori frogaezina da, gezurra da eta".

Azkenaldian, Juan Ramonen ustez, "argi gorri guztiak piztu dira Estatu espainiarrarentzat, ikusi dutelako Euskal Herria eurok gustuko ez duten norabide batean abiatu dela, eta hori saiheste aldera, ofentsiba gogor bat abian jarri dute".

Arangurenek argi dauka zein den horrekin guztiarekin lortu nahi dutena, eta halaxe azaldu dio *Goienkaria*ri: "Euskal Herriaren eraikuntzaren eta euskararen alde dabiltzan erakundeak kriminalizatu nahi dira, nola edo hala, ETArekin nahastuz". Bere esanetan, euskararen aurka hain bortizki joan badira, euskarak herrigintzan duen indarra handia dela badakitelako izan da. Jone Goirizelaia euren abokatuak prentsaurrekoan adierazi zuenez, inoiz baino gehiago, momentu honetan justizia interes politikoen menpe dago. Bestetik, honakoa dio: "Instituzioei dagokienez, berriz, honen guztiaren aurrean erakutsi duten jarrera epela, erakutsi duten epelkeria, benetan tristea iruditzen zait".

Azkenik, Juan Ramonek "kezkagarritzat" jotzen du egoera hau, eta zera diosku: "Ofentsiba horren aurrean ezin dugu lorik hartu, zerbait egiten ez badugu, ez dugu etorkizunik herri bezala".

ARRASATE — 'BAI EUSKARARI' AKORDIOA HERRIETAN ZABALTZEN HASI DA

Kontseiluaren plan estrategikoa Arrasaten gauzatuko da

Euskalgintzan diharduten taldeek elkarrekin lan egingo dute

UBANE MADERA

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Bai Euskarari akordioa abian jarriko du Mondragoen, bai eta Euskal Herriko beste 15 herritan ere. Hitzarmena ondo ateraz gero, gainerako herri guztietara zabalduko da.

Kontseiluak 2000. urteko Batzar Nagusian erabaki zuen Bai Euskarari akordioa herrietan bideratu beharra zegoela; hasieran, batzuetan bakarrik, proba modura.

Arrasaten euskalgintzan diharduten taldeek hemen gauzatzea proposatu zioten Kontseiluari, eta halaxe egitea erabaki zuen.

Esan behar da, geure bailaratik kanpo, inguruan, Eibarren ere gauzatuko dela euskararen aldeko hitzarmen hau.

BI ALDITAN

Bi zatitan garatuko da akordioa. Lehenengo sei hilabeteetan Mondragoeko euskalgintzaren baitako taldeek plan hori zein sektoretan, zelan eta zertarako gauzatuko den aztertu eta erabakiko dute, plan bat eginez. Hain zuzen ere, plan estrategiko horrek erakutsiko du zeintzuk diren sektore batek euskararen normalizaziorako eman behar dituen pausoak.

Horretarako, hamabostean behin elkartuko den lantalde bat eratu da: AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Arrasate Euskaldun Dezagun, EMUN, Txatxilipurdi eta Arrasateko Udaleko ordezkariak daude lantaldean. Talde horrek lanerako proposamenak egingo ditu, gero proposamen horiek gauzatzen hasteko.

Erabakiak, berriz, talde nagusi batek hartuko ditu. Hilean behin elkartuko da. Talde nagusi horretan, lehen aipatutako taldeez gain, Arko, Euskalan eta herriko hainbat ikastetxeren ordezkariak egongo dira.

Bigarren seihilabetean, ostera, plana bera abian jarriko dute. Horretarako, sektore horietako gizarte eragileekin elkartu eta plan estrategikoa garatuko da.



Xabier Mendiguren Kontseiluko lehendakaria. ANDONI CANELLADA

ARETXABALETA — KAMINEROKUA ONDARE HISTORIKO

Atzeratu egingo da 14 etxebizitza sozialen eraikuntza Bedarretan

Kaminerokua baserria eta etxebizitzak bateragarriak diren aztertu beharko da

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletatik Arrasatera bidean, Bedarreta auzoan hamalau etxebizitza sozial egiteko asmoa dauka Aretxabaletako udalak. Orain, etxeak egiteko bota behar den Kaminerokua baserria ondare historiko izendatzearekin batera, dexente atzeratuko da etxebizitzen eraikuntza.

Aurtengo udaberrian arau ordezkatzaileak aldatu zituen udalak, "Tubos de precisión" lantegi inguruko lurzoruetan etxebizitza sozialak eraiki ahal izateko. Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen: horren arabera, udalak lurra lagapenean emango dio eta Eusko Jaurlaritza arduratuko da aipatutako etxebizitzak egiteaz.

Orain hilabete inguru, berriz, aipatutako etxeak egiteko bota behar den Kaminerokua baserria Eusko Jaurlaritza egiten ari den Euskal Herriko ondare historikoen erroldan sartu omen dute. Badirudi mende hasieran inor gutxik gogoratzen duen arkeologia industrialaren barruan garrantzitsua izan zitekeen lantoki txikia zegoela hantxe.

EUSKO JAURLARITZARI TXOSTEN ESKAERA

Auzia argitzeko, udalak hainbat batzar egin ditu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailarekin, baina oraindik ez du erabakirik hartu. Astelehen honetan bertan egindako Gobernu Batzordean Eusko Jaurlaritzari txosten bat eskatzea erabaki zen.

Txostenean, zehaztu egin beharko da baserria ez botatzea eta etxebizitzak eraikitzea bateragarriak diren. Jose Maria Segovia hirigintza teknikariaren esanetan, oso zaila izango da hori, "leku gutxi dagoelako bientzat eta baserria eta etxeak bata bestearen gainean geratuko liratekeelako".

Kaminerokua baserria ez botatzea erabakitzen badute, gainera, diru inbertsio handia eskatuko luke, ez dago eta egoera onean. Bi proiektuak bateragarriak izan ezean, bestalde, etxebizitza sozialek izango dute lehentasuna, hala erabaki zuelako udalak, eta baserria bota aurretik argazkiak atera eta txosten bat egingo litzateke herriko agiritegian gordetzeko.

Azken erabakia udalarena izan arren, Gasteizko Gobernuak egingo duen txostenak zeresan handia izango du auzi horretan. Momentuz, txostena jaso arte itxaron beharko da, eta horrek dezente atzeratuko du aipatutako 14 etxebizitza sozialen eraikuntza.

Zertzelada

XV. mendeko agirietan agertzen denez, Osinbaltz izeneko errota egon zen Kaminerokua baserrian. Mende hasieran, berriz, industria lantoki txiki bat.

ARAMAIO — ZERGEN IGOERA JENDAURREAN HILABETEZ

Zergak %3 igoko dira 2001. urtean

UBANE MADERA

Aramaioko udal tasak %3 igoko dira datorren urtean. Horrez gain, sei ordenantzatan aldaketak igarriko dira: ibilgailu, zabor, ur, estolderia eta argindarraren tasetan, eta hilerriko zerbitzuan, hain justu. Halaxe erabaki zuen aho batez Aramaioko udalbatzarrak, azaroko bileran.

Ibilgailuei dagokienez, esan behar da potentzia eta ibilgailu motaren arabera egiten dela zergen sailkapena.

URA, ZABORRA ETA ARGIA


Etxeko ura, 20 m3 arte, 36 pezeta ordaindu beharko da, eta hortik gora, 41. Udalarekin hitzarmena duten auzoetan, berriz, %15eko beherapena izango da.

Nekazaritzarako ura 52 pezetan geratu da 20 m3 arte, eta 57 pezetan hortik gora. Hartune berri bakoitzeko, berriz, ia 17.000 pezeta ordaindu beharko da. Estolderiagatik 438 pezeta ordaindu beharko da bi hiletik behin, eta saneamendu kolektorerik ez dutenek, 1.627 pezeta. Zabor bilketari dagokionez, Ibarrako etxebizitzek 594 pezeta ordaindu beharko dute, auzoetakoek, 486, eta areto komertzialek, berriz, 1.083 pezeta.

Hilerriko zerbitzua, ostera, 18.500 pezeta inguru kostako da datorren urtean. Argindarrean igarriko diren aldaketak, bestalde, udaleko hainbat zerbitzurekin lotutakoak dira.

Zergen aldaketa hauek jendaurrean jarriko dira hilabetez, ekarpenik balego, kontuan hartu ahal izateko.

ELGETA — BOST URTE DELA ERRE ZEN BASERRIA BERRITU EGINGO DUTE



Nekazaritza turismoa Barrenenguan

Bost urte dira baserriaren zati handi bat erre zela. Abuztutik aurrera, berriz, Agustin Beretxinaga eta familiak kanpoko jendea beren etxe berriztuan hartzea gura lukete. Baimenak, diru laguntzak (bai Aldundi eta bai Jaurlaritzakoak) eta gainontzekoak tramitatzen dihardute; bitartean, betiko zereginetan dabiltza buru-belarri. 85-100 ganadu buru dituzte.

Sei logela izango ditu baserriak, bakoitza bere komun eta guzti. Goiko gelek terraza izango dute eta ingurua ere txukundu nahi dutenez, umeendako ziburuak, eta gainean jarrita ibiltzeko pottokak jarriko dituzte. Gogo handia dute familiakoek; ea abuztuan zabaldu ahal duten.

IBAN ARANTZABAL

Zabalik



NEKANE SAN MIGEL

El Florido Pensil

Izenburu hori daraman liburua irakurtzeko aukera izan nuenean, pasatakoa urruti ikusteak ematen duen soseguak eta idazlearen luma fin eta umoretsuak barrealgarak egiteraino eraman ninduen. Inguruan nituen gazteek ezin zuten ulertu hain trakets, irentzaile eta faxistatzat emandako eta kontatutako eskola horrek nola eragin zezakeen halako erreakziorik, baina hainbat pasarteri bere grazia ere topatu zien... zer esanik ez Ttanttakoek antzeztutakoa ikusteko modua izan genuenean. Guztiok ikusiko zenuten antzezlan hau, besterik ez bada ETBkoek behin baino gehiagotan eman dutelako... Ba, halako emanaldi batean susto galanta hartu nuen: telebistan hori, eta egunkarietan, Hezkuntzaren egitasmoen inguruan datozen "*berriak*": berehala ikusi nuen berriz ere Paco Sagarzazuk antzezten duen señoritak explikatzen duen historia eta geografia gure eskoletan... erlijioaren derrigortasuna... *"balore berriak"*... eta horien guztienbehar den moduko kontrola egiteko, eskolan aldiro agertuko den Ikuskatzailea (inspektorea, hobe)... ea gaztetxoek *"secesionismoa eta terrorismoa"* ikasi duten (hala, balore patriotikoak)... ea . "Hator, hator..." edo "las castañas" kantatzen duten... Exajerazioa?... hobeto, baina larri ibili.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@topagunea.com

Kanpo zorra ezabatu

Azaroaren 26an Madrilgo Diputatuen Kongresuaren inguruan izandako gertaera negargarri batzuk ikusteko aukera izan genuen. Herrialde pobretuen Kanpo Zorra ezabatzea eskatzeko protesta bidezko eta baketsu bati bortizki eraso zion poliziak, inolako justifikaziorik gabe.

Telebistako imajinek gertatutakoa argi eta garbi erakutsi zuten arren, izan da manipulazio mediatikorik: "...poliziak jarritako hesia gainditu zuen..." (*ABC*, 2000/11/28); "Hogeita lau pertsona zauritu ziren, -horietako lau, poliziak-", "...poliziek handik alde egiteko agindu zieten manifestaziokoei, baina manifestaziokoek ez zuten kasurik egin" (*El País*, 2000/11/27)...

Esan beharrik ere ez dago informazioak gezur hutsak direla. Aipatzearren aipatuko dut, gure lagun batek ikusi, ikusi zuela polizia bat anbulantzia batean osatzen zihardutena, baina zituen "zauriak" bere porrako uhalak egindako marka batzuk baino ez zirela. Poliziak zaurituta? Kontzientzian ez bazituzten zauriok? Berbazko biolentziarik ere ez zen izan, eta irain txar bat ere ez.

Ez da hau demokrazia parte hartzailea gauzatzeko ahalegin bati sistemak bortxaz erantzuten dion lehen kasua. Kanpo Zorra Kentzearen aldeko Hiritarren Sareak gaiari buruzko herri-kontsulta baterako deia egin zuen martxoaren 12rako. Bi egun lehenago Hauteskunde Batzorde Nagusiak debekatu egin zuen eta, hori dela eta, zenbait udalerritan (tartean, Aretxabaletan eta Arrasaten) kontsulta atzeratu beharra izan zuten eta beste zenbait antolatzaile atxilotu egin zituzten.

Hala ere, 3.000 arrasatear baino gehiago eta Estatuko 1.000.000 lagunetik gora izan ziren herrialde pobretuen zorra guztiz anulatzearen alde agertu zirenak.

Herritarren eskari horri ez dio Gobernuak inolako kasurik egin. Are gehiago, orain dela gutxi argitaratu den Kooperaziorako Plan Nagusian diru-kopuru ziztrinak bideratuko dira zorra gutxitzeko eta, kasurik onenean ere, %10 gutxituko da datozen lau urteotan.

Horixe zen domekako protestaren arrazoia. Denok dakigu zer nolako erantzuna jaso zuen: ekintza demokratiko, baketsu eta bortxarik gabeko bati porraz, ostikoz, gomazko pilotaz eta jendea atxilotuz erantzun zitzaion.

Poza ematen du nor bere burua eurengandik horren desberdin ikusteak, indarkeriari eta errepresioari arrazoiren eta erresistentzia pasiboaren bitartez erantzuteak.

Oraingo manifestazioaren kontra jotzeak zein lehengo herri-kontsulta debekatu eta bera antolatu zutenak atxilotzeak gauza bat erakusten digute: bide onean goazela, gure ekintzek min ematen dietela.

Nikaraguako esaera zahar batek dioenez, "defendatzen ez den eskubidea galdu egiten da". Defendatu eta birsortu dezagun demokrazia. Gogora dezagun, demokrazia benetan herritarrengan oinarrituta egon dadin, egunez egun praktikatu beharra dagoela, egunez egun berritu behar dela. Bestela, demokrazia fikzio hutsa baino ez da izango, herritarren ordezkaritza imajinario, irreal... batean oinarritutako parlamentarismoa justifikatzeko bidea baino ez.

OSKAR J. SAIZ
Arrasate

Antzuolako herriari

Oraingoan, Garzon epaileak, Egin, Xaki, Joxemi Zumalabe, AEK eta abarren aurka irekitako 18/98 sumarioaren barne, gure herritar eta kide den Juan Ramon Aranguren deitu zuen, joan den astelehenean, abenduaren 4ean, bere aurrera agertzeko.

18/98 sumario hori politikoa da, eta estatu espainolak ezker abertzalearen aurka antolatuta dauka, hainbat militante kartzeleratu edota izugarrizko zigor ekonomikoak ezartzeko. Berriro ere dei egiten diegu erakunde politiko, sozial, sindikal eta herritar guztiei, eta heldu diezaigun sakoneko konponbideari Lizarra-Garazi aurrera eramanez.

ANTZUOLAKO EUSKAL HERRITARROK
Antzuola

Justizia euskararentzat!

Gutun honen funtsa, Deba Goieneko herritarroi justizia administrazioan, euskarak eta euskaldunok, jasaten dugun egoera salatu eta berau gainditzeko, abenduaren 16an Bergaran burutuko den manifestaldian parte hartzeko gonbidapena egitea da.

Euskal Herrian euskarak ez du, herritarren borondatearen aurka, marko legal bakar bat, hizkuntza komunitate bakar bat izateak behar lukeen bezala.

Iparraldean eta Nafarroako alde EZ baskofonoan euskarari ez zaio bere izatea onartzen, ez justizia administrazioan, ezta gizarteko beste esparru publikoetan ere.

Hegoaldeari dagokionez, EAE zein Nafarroako zonalde baskofonoan euskara ofiziala omen da. Omen, diogu, ofizialtasunaren ondoriorik ez baita antzematen justizia administrazioan.

Ofizialtasunaren arabera, euskal herritar orok administrazioarekin dituen harremanetan erabili gura duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea du. Eta ondorioz, administrazioak hizkuntza horretan erantzun eta jarduteko betebeharra dauka, euskaldunontzat ez dena betetzen.

Bestalde, itzultzeko aukera eskaintzen omen dute. Honek epaitu euskaldunari hilabeteetako atzerapena edo defentsarako babes eza suposatzen dio.

Azkenik, aipatzea, euskaldunok justizia administrazioaz ditugun harremanak gazteleraz izatea normaltzat dugula eta horrek ez luke horrela izan behar. Justizia administrazioan aldarrikatu eta exijitu beharra daukagu euskaraz jardun ahal izatea. ESKUBIDEA DUGULAKO, abenduaren 16an, eguerdiko 12etan, Bergarako plazan.

JOANA LASA ERLE
Euskal Herrian Euskaraz

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Madrilgo eta Gasteizko gobernuek argi berdea eman diote Lastertasun Handiko Trenari. Euskal Autonomi Erkidegoko hiriburuak lotuko dituen trenbidearen lanak datorren urtean hasiko dituzte eta 500.000 milioi pezeta inbertituko dira.

Askok zalantzan jarri dute euskal Y-a, eta ingurumenari egingo dion kaltearengatik kezkatuta daude. Ia 700 alegazio aurkeztu zaizkio proiektuari, horietatik asko bailarako udalenak, Mankomunitatearenak eta hainba talde eta partikularrenak.

Beharrezkoa da Debagoienerako Eibar-Gasteiz autobidea?

Gure herriaren garapena ziurtatzen du trenak



FERMIN MENDIZABAL
Gipuzkoako Merkataritza Ganberako Lehendakaria

Ardatz transeuroparra gure lurraldera ekartzea behar-beharrezkoa da. Bi arrazoi nagusirengatik: batetik, trenbide sare bat mendean behin eraikitzen delako eta trenbide azpiegiturek hainbat belaunalditan baldintzatzen dutelako herrialde baten garapen ekonomikoa.

Bestetik, Europako Batasunak trenaren aldeko apustua egin duelako. Ardatz batzuk aukeratu ditu eta hauetatik aparte geratzen diren herrialdeak atzean geratuko dira.

Ardatz transeuropearra lehen mailako planteamendu estrategikoa da, gure herriarentzat ez ezik, Debagoienarentzat ere. Horregatik, Euskal Autonomi Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko dituen euskal trenbidea baino gehiago dela esan genezake.

Europako iparraldetik hegoaldera, Euskadi zeharkatuko duen Atlantikoko trenbide europarra da, hau da, beste trenbide ardatz batzuen garapenaren aurrean, bereziki Mediterraneoko ardatzaren aurrean leihatzeko aukera emango diguna. Hitz batean, Euskadiko lurraldeak zentzu europarraz lotzea ahalbideratuko duen alternatiba.

Proiektuak aparteko inbertsioak eskatzen ditu eta hauei Estatuko administrazioek eta Europako fondoek egingo diete aurre, beste aukera batzuk baztertu barik. Egitasmoak ingurumenarekiko sentsibilitatea erakutsi du hasieratik (trenbidearen zatirik handiena lur azpitik igaroko da). Kontuan hartzen ditu, era berean, hasierako ibilbideari aurkeztutako alegazioak eta alternatibak, jendaurrean izan direnak.

Lastertasun handiko trenari ezetza, inongo duda barik



MAITE ARISTEGI
EHNEko Idazkari Nagusia

Obra erraldoi horrek gizartearentzako ekar dezakeen onurak, inondik inora ere, ez duelako justifikatzen sortuko dituen kostu izugarriak, ekonomia, gizarte zein ingurumen aldetik. Eta bereziki, gure bailara estu-menditsuari begiratuta, debagoiendarrok haren ustezko interes sozial edo erabilpen publikoaren onurak usaindu ere ez ditugulako egingo. Eta kalteak? Ingurumenarentzako, oro har, baina egiteko orduan, bai egin eta gero kalte eta arrisku neurrigabeak: uraren inguruan (errekatxo, iturriak, azpiko urak...), zarata jasanezinak (500 eraikuntzatan gutxienik), hondakin toxikoen 13 zabortegiren gainetik doa, bertako landaredi eta basaganadu, dibertsitatearen galera...

Nekazaritzarentzako, bereziki, lehendik ere lur gabe gelditzen ari den bailaran, ehunka hektarea lurren galera, askotan nekazaritzarako baliorik onenetarikoak, ezinbestekoak hemen ere gutxienik nekazaritza bizi dela esateko; hainbat baserri eta lursail zatituta, horrek duen eragin latzarekin; hainbat lanpostu kolokan, baita nekazaritzari lotutako industria eta zerbitzuetan; kutsadura berriak gizaki eta ganaduen osasunarentzako (zaratarena, elektromagnetikoa, atamosferikoa,...). Eta gure lurraldea, Euskal Herria, zatituta; gure eguneroko garraio arazoak konpontzeke; merkantziak eroateko aukerarik ez; guztia LHT egiteko gastatu, ohiko trenbide sareak hobetzeko edo errekuperatzeko aukerarik ez... Eta zertarako, banaka batzuek Madrildik Parisera azkartxoago iritsi nahi dutelako? Halako astakeriarik horraitio!

Desarrollismo suntsitzailea

Espainiako Ingurumen Ministerioak "Euskal Y"aren inguruan iragarri duen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Aitorpena (IEA) dela eta, agintariek Lastertasun Handiko Trenaren auziari arrazoizko konponbiderik emateko borondaterik eta zintzotasunik ez dutela nabarmen agertzen da.

Ministerioak ingurumenarekiko eraso bortitz bati lotsagabeki garrantzia kendu nahi diola eta hainbat gizataldek gure alegazioetan LHTren egitasmoa zalantzan jarriz azaldu ditugun argudio eta kritika guztiak erantzun gabe utzi dituela salatzen dugu. Azken batean, Ingurumen Ministerioak bere agiria gobernuen desioen neurrira moldatu duela salatzen dugu. Bestalde, eta Debagoienari dagokionez, salatzekoa da egongo diren inpaktuen batzea ez dela aurrez ikusten: "astopista" eta LHT Mazmelatik Gasteizeraino ia paralelo doaz. "Astopista" egiten da, zonalde batzuk suntsitu eta pobretzen ditu. Gero, LHT dator eta esaten dute eragina minimoa dela.

AHTren Aurkako Asanblada
(Ekologistak Martxan, EHNE, Lurra, Besaide ME, ESU, EH, IU eta Zutik)

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: berrigara@topagunea.com

'Behi eroak', transgenikoak,...badakigu zer jaten dugun?

Gora eta Behera

EUSKAL ZINEMAGINTZA

Manu Gomez arrasateararraren *Hilarri* film laburrak Bilboko Zinebi jaialdian euskal zinemaren saria jaso duelako eta Oscar sarietarako ateak zabaltzen dizkiolako. Zorionak, zuzendariari ez ezik, filman parte hartu duten guztiei: tekniko, aktore eta abarrei, eta, oro har, euskal zinemagintzan lanean dabiltzan pertsonaia anonimoei.

ITXURAKERIA

Gabonen atarian, gero eta lehenago hasten gara ospakizunetan. Azarotik erosketen zurrunbiloan murgilduta gabiltza, menu berezietan dirutza gastatzen, Gabonak sentitu ez arren. Bestalde, kaleak apaintzeko argitxoetan gastatzen dena salatzekoa da, kontuan izanda argi barik dauden kaleak argiztatzea zenbat kostatzen den.



AITZIBER ARANBURUZABALA
Arrasate Irratiko esataria

Koplak

Gabonak

Gai bila hasiz, Gabonak datoz
nahi gabe nire mihira
oraindik izan, ez diren arren
jadanik iritsi dira.

Nire bonbila piztuagatik
zer harriturik ez dago
beste batzuek piztu baitira
nirea baino gehiago.

Dirua erruz gastatu arren
aberastasunik ez da
lehen festa zena bihurtu zaigu
kontsumismoaren festa.

Txikiak ahul eta haundiak
beti bezala seguru
elkartasuna seguru asko
afaritan jango dugu.

Txanpainak soilik nonbait ezin du
ase gure egarria
Olentzero ere jadanik ez da
lehen bezain maitagarria.

Olentzero, ni ere ez naiz
uzte bezain aberatsa
oso gustura hartuko dut ta
ekar zaidazu ikatza.

AINHOA AGIRREAZALDEGI

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
SAILETAKO ARDURADUNAK: Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
KOMERTZIALAK: Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Maddi Trutxuelo, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ESKER ONA

Andres
Agirre Kortabarria

Bergaran hil zen
2000ko azaroaren 28an,
86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mercedes
Zubiarre Astoreka

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduak 10,
12:00etan,
Bergarako Santa Marinan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Maria
Agirre Azkarate

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduak 10,
11:30ean,
Bergarako Santa Marinan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria
Arrregi Lamaroiano

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduak 10,
11:30ean,
Bergarako Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Josefa
Altube Lonbide

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduak 10,
11:30ean, Bergarako
Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Edurne
Atxa Askasibar

Argi bat itzali da
hemen lurrean
berri bat piztu da
han, zeru ederrean
beti jarraituko duzu
gure bihotzean.



Koadrilako lagunak


ESKER ONA

Pedro Mari
Ezkurra Guridi

Arrasaten hil zen
2000ko abenduaren 1ean,
50 urte zituela.



Familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, eta hileta elizkizunetara etorri izana. Era berean, abenduaren 9an, zapatua, Arrasateko Uribarriko elizan, 19:00etan, esango den mezara gonbidatzen zaituztete.



BENITO CANTERO


Eskela, urteurren meza edota eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Irizar jauregian; Barrenkalea, 33an

ARRASATEN, *Arko*ren egoitzan; Otalora Lizentziatua, 31n.

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan, Duranan.

Telefonoak:
943 76 92 71 (*Goienkaria*)
943 76 03 97 (*Berrigara*)
943 71 25 11 (*Arko*)
943 79 86 21 (*Aretxagazeta*)



ENEKO AZKARATE

Jabier Gantxegi

FAGOR ELEKTRATRESNAK KOOPERATIBAKO LEHENDAKARIA

"Sutea dela eta, salmenta guztiak ezin izango ditugu egin. Hilabeteak beharko ditugu errekuperatzeko"

BEZEROAK ZAINDU

"Espainian izan gara Fagorrek dituen 60 bezero garrantzitsuenei gertatutakoa kontatzen, aurrez aurre"

LAGUNTZA

"Gurekin lehian dauden hainbat enpresak ere laguntza handia eman digute, Bergarako Mayc-ek, esaterako"

Gazteizko biltegia erretzen ari da'. Etxean zegoen Jabier Gantxegi, Fagor Elektratresnak taldeko lehendakaria, telefonoz hori esan ziotenean. Berehala autoan sartu eta Arabako hiribururako bidea hartu zuen. Bidean suteari buruzko datuak eman zizkioten, telefonoz. "Suhiltzaileek ere esan ziguten inoiz ez zutela ikusi sua horren bizkor zabaltzen".

MARIJO DEOGRACIAS

Jabier Gantxegi bergararra da eta 55 urte ditu. Orain dela lau urte Fagor Elektratresnak taldeko lehendakari izendatu zuten. Baina, aspalditik dihardu Fagorri lotuta. 1977tik, hain zuzen ere. Aurretik, 1971tik 1977ra, eskolak ematen aritu zen Arrasateko Eskola Politeknikoan.

Hilabete da Gasteizko biltegia erre zela. Zelan egiten zaio aurre horrelako gertaera bati?

Azaroaren 8an izan zen, baina denbora asko pasa dela dirudi. Gasteizen biltzen ziren Espainiara egiten diren etxetresnen salmenten eta esportazioen %30-40. Sistema logistiko barik gelditu gara. Talde bat eratu genuen lau arlo antolatzeko: komunikazioa, logistika, asegurua eta garbiketa, eta biltegi berria eraikitzea.

Biltegi nagusiaren inguruan beste biltegi txikiago batzuk ditugu, baina nahiko ez zirenez, gehiago behar genituen. Aipatzekoak dira instituzioen aldetik izan dugun laguntza eta baita beste enpresa batzuena ere; gurekin lehian dauden hainbat enpresak ere laguntza handia eman digute; Bergaran, esaterako, Mayc-ek metro koadro asko laga dizkigu, baina antolatu beharra dago.

Non dituzue, bada, biltegiak?

Gasteiz inguruan dugu bat; zuzenean esportatzen ez direnak Bergarako industriagune berrian ditugu; Arrasateko Garagartza auzoan (lehengo Trefasan) eta San Andresko lantegian bertan; eta bosgarrena, Basaurin.

Eskariak ezin izango dituzue bete.

Salmenta guztiak ezin izango ditugu egin. Hilabete batzuk beharko ditugu errekuperatzeko. Egiten ditugun etxekotresna elektriko guztiekin, biltegi barik gaudenez, plantak geldituko zirela uste genuen; ez da horrela izan, eta gehiago produziten ari gara. Zentzu horretan, jende gehiago ere hasiko da lanean. Baina, sistema logistikoa ez dabilenez, produkzioa horren neurrian haziko da. Dena dela, badakigu azaroan ez dugula errekuperatuko guzti-guztia, baina, nahiz eta kostu handiagoa izan, pare bat hilabetetan moldatzea espero dugu.

Sua zelan sortu zen badakizue?

Badakigu segurtasuna ezin dela perfektoa izan, baina Gasteizko biltegiak segurtasun neurri handiak zituen. Hala ere, hain bizkor zabaldu zen sua, ezin izan zen ezer egin.

Oraindik ez daukagu gertaeraren bertsio ofizialik. Hainbat hipotesi dago: hala nola, lanpararen batek su hartu eta sabaitik hedatu zela... Gure aparailu askok kartoia dute, baina kartoiak ezin izan zuen sua horrenbeste hedatu. Gauzak horrela, litekeena da sua sabaitik zabaldu izana.

Horrelako gertaerak onuragarriak dira zuekin lehian dauden enpresentzat?

Zuzendari orokorra, erosketen zuzendaria eta bi zuzendari komertzial Espainian izan dira Fagorrek dituen 60 bezero garrantzitsuenei gertatutakoa kontatzen, aurrez aurre. Dena dela, ahalmena badaukagu euren eskaerei erantzuteko. Gure bezeroak urtetako bezeroak dira. Eta lehiari dagokionez, euren laguntza ere eskaini digute.

Fagor Elektratresnak-ek 1.460 langile ditu Garagartzan eta lau urtean 2.025 izango ditu. Produkzioa hirukoiztu egingo duzue sukalde, garbigailu eta ontzigarbigailutan. Gertatu denak atzeratu egingo ditu handitze planak?

Nire ustez, ez du eraginik izango. Azken batean, aseguru etxeen kontua izango da biltegi berria egitea aurrekoak besteko neurriekin, eta agian, gure esku geratuko da hobetzea, horrek dakarren gastuarekin; baina, ez du eraginik izango. Gure plan estrategikoan hainbat proiektu ditugu. Batetik, Basaurin egiten ditugu ura berotzeko termoen planta handitzea, 1.000 milioiko inbertsioa eginez. Espainian merkatu horren %45 gurea da eta Europan ere liderrak gara. Bestetik, ontzi garbigailuen birmoldaketa egingo dugu, hau da, produktua eta prozesua aldatuko dira. Eta azkenik, "Garagartza 2000 " proiektua.

Jakina, orain beste zeregin bat dugu: biltegi berria egitea.

Biltegi berria, noizko?

Hilabete edo beharko da garbitzeko, eta bitartean talde bat eratu dugu biltegi berriaren proiektua egiteko.

Fagorrek kalitate egiaztagiriak lortu ditu Garagartza eta Poloniako Wroclawko lantegietan: ISO 14.001 kalitate egiaztagiria, alegia. Horrelakoak beharrezkoak izaten dira, ingurumenari begira, bestelako produkzio moduak abian jartzeko, baina kontzientzia 'garbi' izaten laguntzen dute?

Garagartzako guneari eman zioten ziurtagiria. Orain, helburua San Andrekoari ematea da. Baina, planta hau zaharra da eta ziurtagiria lortu aurretik bestelako berrikuntzarik egin behar dugu. Eskoriatzako eta Basauriko lantegiak ere aurkeztu nahi genituzte; horiek datorren urteko asmoak dira.

Ziurtagiria lortzeko lantegia antolatu eta gestionatu behar da: koloretako zabortegiak jartzea, hondakinak konpontzea... eta horrelakoek laguntzen dute kontzientzia 'garbiagoa' sortzen.

Dena dela, horrek gure produktuetan ere eragiten du; batetik, aparailuek %10 argindar gutxiago kontsumitzen dute, bai eta ur gutxiago eta garbikari gutxiago ere. Azkenik, tresna horiek birziklatzea geratuko litzateke, eta hori oraindik ez daukagun arren, laster Europako Parlamentuak indarrean jarriko dituen legeek horretara behartuko gaituzte. Guk 800.000 etxetresna egiten ditugu eta ez gara handiak, beraz, pentsa ezazue zenbat birziklatu beharko den etorkizunean.

Podiuma

Juanina Garai | FUTBOL ENTRENATZAILEA |

Juanina Garai arrasatearra (38 urte) hirugarren mailako Bergara futbol taldeko entrenatzailea dugu. Mahoneroak joan zen denboraldian baino hobeto ari dira eta etxean ez dute oraindik partidurik galdu. Lemoak eta Realak, besteak beste, ez dute punturik eskuratu Agorrosinen. Zapatuan, 15:30ean, Lagun Onak taldea hartuko du Bergarak.



Juanina Garai arrasatearra.

Denboraldiaren hasieran horren ondo ibiltzea espero zenuten?

Aurreko denboraldian mailari eusteko hainbeste sufritu eta gero, inor gutxik espero zuen gauden tokian egotea. Taldeak baja inportanteak izan zituen denboraldiaren amaieran, baina etorritako jokalariek maila ona erakutsi dute eta, emaitzei begiratzen badiegu behintzat, talde hobea daukagu. Jokalariek ere esperientzia handiagoa daukate eta hori ere kontuan hartzekoa da.

Zelako taldea duzue?

Defentsan ondo gabiltza eta baloia dugunean berehala egiten dugu gora. Talde erasokorra da gurea.

Taldeko giro ona nabarmendu duzu askotan.

Egia da. Aldagelan oso giro ona dago eta jokalariek duten ilusioak zerikusi zuzena dauka lortzen ari garen emaitzekin. Hain zuzen ere, jokoan islatzen den giro hori da gure sekretuetako bat. Alde horretatik, oso pozik nago.

> "Joan zen denboraldian mailari eusteko hainbeste sufritu eta gero, inor gutxik espero zuen gauden tokian egotea"

> "Gure helburua 45 punto lortzea da eta hortik aurrera ikusiko dugu noraino heltzen garen"

Zein da aurtengo helburua?

Gure lehenbiziko helburua 45 punto lortzea da, eta hortik aurrera ikusiko dugu noraino heltzen garen. Gauzak ondo badoaz, liga amaieran sailkapenaren erdialdean izango garela uste dut. Horretarako, aurrerantzean ere Agorrosingo puntuei eusten jarraitzea oso inportantea da.

Orain arte behintzat Bergarako zaleen aurrean ondo ari zarete...

Bai, bost partidu irabazi eta gainerako hirurak berdindu egin ditugu etxean. Agorrosingo partiduetan taldea beste modu batean motibatzen da eta gusturago jokatzen du. Bergarako zaleek taldea animatzen dute eta jokalariek eskertzen dute hori zelaian, dudarik ez.

Hain lehiakorra da hirugarren maila?

Lehenbiziko urtez ari naiz hirugarren mailan. Aurretik erregional eta preferente mailan ibilita nengoen Aretxabaleta eta Arrasateko taldeekin, eta esan behar dut lehiakortasuna guztietan dagoela. Hirugarren mailan aurrekontuak handiagoak dira eta horrek beharbada talde batzuengan presioa areagotzen du.

Orain arte ikusitako taldeetatik zeintzuk dira indartsuenak?

Sestao gustatu zait gehien. Lemoak eta Realak ere talde onak dituzte eta Zamudio, berriz, ez dut ikusteko aukerarik izan. Liga amaieran laurak egon daitezke hor goian.

EDU MENDIBIL



Nire Pronostikoen

AITOR ZABALETA / Auto gidaria

Ez naiz pilotazalea, baina lau t´erdiko txapelketako finalerdietan Titin eta Eugi ikusten ditut faborito. Titin artista da pilotan jokatzen eta, nahiz eta partidua Iruñeko Labriten jokatu, Nagore nafarrari irabaziko diola uste dut. Eugi eta Retegiren arteko partidua ere gogorra izango da, ziurrenik. Astelehenean Retegik erakutsi zuen oraindik ere sasoi onean dagoela, baina Eugi ere sasoian dago eta partidua irabaziko duela uste dut.

Futbolean, Athletic eta Reala nahiko kaskar dabiltza, baina itxaropentsu naiz astebukaerako jardunaldiari begira. Bada ordua Realak etxetik kanpo irabazteko, eta hori zapatuan lor dezake, Valentzian irabaziz gero noski. Athleticek ez dut uste arazorik izango duenik Oviedori nagusitzeko.

Astebukaera honetako partiduak

A/	Valentzia	1	Reala	2
B/	Athletic	2	Oviedo	0
C/	Titin	22	Nagore	17
D/	Eugi	22	Retegi	18



Eskuinaldean, makurtuta, Sanchez eta Garcia.

Sanchez eta Garcia frontenis txapeldunak Aretxabaletan


E. M.

Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia arrasatearrek osatutako bikoteak irabazi du Aretxabaletako frontenis txapelketa. Zapatuko finalean Garciak eta Sanchezek 25 eta 24 irabazi zieten Jose Izquierdo eta Candido Hurtado arrasatearrei. Bestalde, hirugarren postua eskuratzeko partidan, Patxi Vallejos eta Xabier Albisuak 25 eta 18 emaitzarekin nagusitu zitzaien Igor eta Joseba Cusi anaiei. Honako hau bergararren arteko neurketa izan genuen. Finalerdietan, Sanchezek eta Garciak Cusi anaiak mendean hartu zituzten (25-12). Izquierdo eta Hurtado txapeldunordeek, bestalde, ozta-ozta lortu zuten finalerako txartela Vallejos eta Albisuaren kontra (25-23).

Urritik hona 12 bikote izan dira lehian Aretxabaletako frontenis txapelketan. Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatutako lehiaketa amaitzeko txapelketa jokatuko da Angiozarren hilaren 16, 17 eta 23an.

ATZOKO TXAPELDUNAK

Joxe Arriaran 'Arriaran II.a' Pilotaria



Umorez, Fidel Castro jaio zeneko egun berekoa dela dio Joxe Arriaranek, 1926ko abuztuaren 13koa, hain zuzen: "A ze parea, eh?". Sei anaiarreba ziren. Lau anaiak kirolariak izan ziren: Felixek, Joxek eta Pakok pilotan jokatu zuten eta Juanito, berriz, futbolaria izan zen gaztetan. "Mutikotan, futbolean edo pilotan aritzen ginen; besterik ez zegoen orduan. Pilotan edozein hormatan jokatzen genuen. Batzokiko frontoian (gaurko Uarkape pilotalekuaren parean zegoena) ere ibiltzen ginen garai hartan". *Mondragones* (Arrasatek eman zuen lehen txapelduna) izan zuen maisu: "Punta-puntako pilotariak zeuden Arrasaten gure gazte denboran: Bolinaga, Zurdo de Mondragon, *Mondragones II*.a... Jarraitzaile asko genituen eta Bergaran izaten ziren pilota jaialdietara joateko, adibidez, tren bereziak antolatzen ziren". Hamazortzi urte zituela, profesionaletan debutatu zuen Arriaran II.ak, Lekeitioko Zugadiren aurka, Ondarroan. Profesional garaian Empresas Unidas-en aritu zen eta profesionaletan debutatzeagatik 200 pezeta eman zioten. "Orduan, dirua zen, baina gaurkoarekin konparatuz, ezer gutxi. Gutxirekin konformatzen ginen, beste garai batzuk ziren eta. Profesionaltasuna ez zen gaurkoa modukoa. Aitak latorritegia zuen eta hantxe egiten nuen lan".

Arriaran II.a bi aldiz izan zen eskuz banakako txapeldun. 1954. urtean eskuratu zuen lehen txapela: Bergaran, Soroari, 22 eta 13 irabazi zion. Handik urtebetera, Eibarko Astelenan, txapelari eutsi zion, emaitza berarekin Garcia Ariñori nagusituz. Bietan sekulako harrera eskaini zioten bere jaioterrian. Beste bi final ere jokatu zituen, eta hauetan Garcia Ariño eta Oguetaren aurka galdu zuen.

Era berean, 1960ko hamarkadaren hasieran, Pako bere anaiarekin batera, eskuz binakako txapeldun izan zen, Ogueta eta Etxabe X.ari irabaziz. Profesionaletan 29 urte egin ondoren, 46 urterekin erretiratu zen. Orain dela zortzi urte erretiratu zen eta alargundu zenetik bakarrik bizi da. Noizean behin pilotalekuetara joaten da eta telebistan ere ikusten du pilota partidurik. Pilotan ere jokatzen du astean pare bat aldiz, lagunekin edo seme nagusiarekin, Eskoriatzan. Pilotaria, beti pilotari...

EDU MENDIBIL





CITROËN XSARA BERRIA

Mundu seguruago baten zehar bidaiatzeko

Citroën Xsara berria segurtasun handiagoaz bidaiatzeko gonbidapena da. Autoan sartzen zaren momentutik, bidaiaz gozatzeko egin den bidaiari baten xarma izango duzu: 1.6i 16v 110cv eta 2.0i 16v 137cv motor berriak, CD kartografikoa duen nabigazio sistema, barne ordenagailua, 6 CDdun kargagailua eta 6 bozgorailudun audio sistema, klimatizagailu automatikoa... Alboko eta aurreko airbagei esker, babestua egongo zara eta esperientzia horrekin gozatuko duzu. Baita ABS balazta banatzaile elektronikoekin ere, alboko kolpe zurgatzailearekin eta lagunduriko direkzio aldakorrarekin. Informazio gehiago www.citroen.es webgunean.

Bertsioen araberako ekipamenduak. Penintsulan eta Balear Uharteetan stock-ean dauden autoentzat baliagarria. Citroën informazioa: 902 44 55 66


CITROËN-EK ZUGATIK EGIN DEZAKEENA SEKULAKOA DA

Citroën-en banatzaile ofizialak

CHAPIME TAILERRAK
Araba etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE


CITROËN

ION AUTOAK
Amillaga, 36 BERGARA. Tel.: 943 76 47 49 / 73





ARAMAIO
ARAMAIOKO UDALA
ARABA



Aramaixo
Arabako
Debagoiena
Bisita gaitzazu!

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Etorkizuna jorratzen
Debagoienean

NORTASUN EZAUGARRIAK

- Gizartearen eraldakuntzan konpromiso finkoa
- Kalitatezko prestakuntza integrala, enpresen eskaerei bideratua
- Pertsonaren garapen integrala du helburu
- Autokudeaketan, taldeko lanean, kooperazio eta parte hartzean oinarritutako heziketa
- Praktikak eta ikerketa proiektuak enpresetan
- ALECOP-en lan egin, eta, aldi berean, ikasketekin jarraitzeko aukera

ESKAINTZA FORMATIBOA


Unibertsitate-titulazioak:

- Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoa
- Industria Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa
- Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
- Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa
- Gestio-Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
- Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoa (Homologazio prozesuan)
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza (2. zikloa)
- Automatika eta Elektronika Industria Ingeniaritza (2. zikloa)
- Industria Ingeniaritza (2. zikloa)
- Informatika Ingeniaritza (2. zikloa)
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatura
- Humanitate-Enpresan lizentziatura
- Psikopedagogian lizentziatura (2. zikloa)
- Irakasletzan diplomatura: Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Atzerriko Hizkuntza.

Goi mailako heziketa-zikloak

Graduatu ondorengo Irakaskuntza hainbat arlotan: masterrak

Loramendi, 4 • 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 21 85 - 943 79 47 00 • Faxa: 943 79 15 36
Posta elektronikoa: info@muni.es • www.muni.es



Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate



Enpresa Zientzien Fakultatea
Oñati



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza


Goienka 2a

Egubakoitza / 2000ko abenduaren 8a

Kultura eta Aisialdia

Abenduaren 8tik 15era

BIG LIE PRODUKZIOAK



. . . Eta Andy Warholl bere faktoria abian jartzeko gai izan bazen? Eta Monty Phyton-ek zirku ibiltaria gidatzeko gai izan bazen? Zergatik ez da Big Lie mundua aldatzeko gai izango?".

Horrelakoak entzuterakoan, proiektuan benetan sinisten duen norbaiten hitzak direla onartu behar. Arkaitz Billar oñatiarraren hitzak dira, Big Lie proiektua aurkezteko, hain zuzen ere.

Baina, zer da Big Lie? Ez da ez erraza azaltzea, baina, laburtuz, fanzineak, film laburrak, poesia eta musika batzen dituen kultura eskaintza dela esan genezake. Oñatin sortu da eta Oñati eta Donostia bitartean ekoiztu; orain, ostera, mundura zabaldu nahi dute Big Lie. Oñatiko muga gainditu eta bailarara iritsiko da *Big Lie Tourra* abenduaren 16an. Arrasateko Gaztetxea izango da kultura eskaintza alternatiboaren lehen helmuga. Iazko apirilean Oñatiko Gaztelekuan antolatu zuten hiru eguneko jaialdi baten ondoren erabaki zuten *Big LieTourra* egitea. Film laburren emanaldia, fanzinen erakuseta, poesia saioak eta kontzertuak egon ziren hiru egunez. "Oso esperientzia polita izan zen eta Oñatira mugatu beharrean Euskal Herrira zabaltzea erabaki genuen. Gaztetxe asko daude oraindik ere Euskal Herrian, eta batzuek euren 'mobida alternatiboa' dute. Arrasatekoan, esaterako, kontzertu, ikastaro eta bestelakoak antolatzen dituzte, eta Soraluzen sekulako mugimendua egoten da".

Oñatiar 'famoso' asko ezagutzen ditugu: idazleak, musikariak, poetak... Big Lie horren guztiaren beste aldean koka genezake. Ez du eskaintza komertzialik egiten, baina jendearengana iritsi nahi du. 'Beste' bide batzuk bilatu nahi ditu euskal gazteriaren jakintza kulturala aberasteko. Jendeak ez du komiki askorik irakurtzen, baina agian, horregatik aukeratu du Big Lie Banaketak komikiak zabaltzeko lana. Beste horrenbeste esan daiteke Big Liek erabiltzen dituen musika taldeei esker. Hasi berri diren taldeak dira, baina «aukera eman behar zaie». Euskal Herrian egitasmo asko egon dira bestelako kultura eskaintza egiteko. Azken urteotan sortu diren aldizkariak aipatu genitzake, eta baita joan den astean *Goienkaria*n bertan hizpide izan genuen *Putz* bihilabetekaria ere. Baina, Big Liek gehiago izan nahi du. Kultura mugimendu zabala sortu nahi du eta, bide batez, berau bultzatu. Horretarako, alboratuta geldítzen diren arte-espresioetaz baliatuko da eta, bestelako interesik ez duen egitasmoa izanik, edozeinen lana zabaltzeko prest daude. Hasteko, abenduaren 16an Arrasateko Gaztetxean izango dugu aukera horrekin guztiarekin gozatzeko. Eta gero, gerokoak! **(Hurrengo orrian jarraitzen du)**

OÑATITIK MUNDURA

KULTURA ESKAINTZA ALTERNATIBOA

Ekoizpen alternatiboak | Musika, komikiak, zinema, liburuak

Underground-aren eremuan

Oñati Irratiko musika saioa izan zen Big Lie duela bost bat urte. Arkaitzekin batera, Mikel Ugarte oñatiarra aritzen zen gustuko zuten musika uhinetan zabaltzen. Tartean, Oñatiko Gaztelekuan kotzertuak ere antolatu zituzten. Bi urteren bueltan, Donostiara joan ziren ikastera eta irratsaioa bertan behera gelditu zen.

Baina, Big Lie-k bizi irauteko bidea aurkitu zuen. Fanzine bihurtu zen, eta Arkaitzek zuen lanerako gogoei esker, fotokopia formatuan kaleratzen hasi zen. «Underground-aren eremuan mugitu da beti fanzinea, eta musika, komikiak, poesia eta beste hainbat arte espresio jorratu ditu. Lehenengo zenbakia *Big Lie* izenarekin atera nuen eta bigarrena, berriz, *Gezur Handia* izenarekin. Kontua jendea nahastea zen, beste barik. Big Lie fanzinearekin batera Big Lie Banaketa ere sortu zen. Kontua zen Big Lie-n kolaboratzaileek beste komiki batzuk zituztela eta Big Lie-rekin batera euren lanak banatzen hasi nintzen».



Big Lie-k banatzen duen fanzine bat.

Film laburrak ere bai

Komiki eta fanzineak bakarrik banatu beharrean, Big Lie beste kultura eskaintza minoritario batzuekin lanean hasi zen eta horren adibide film laburren emanaldiak ditugu. «Gaur egun lau film labur ditugu eskaintzeko. Bi VHSn eginak dira, beste bat 16 milimetrotan, eta laugarrena 35 milimetrotan. Hau guztia lagun arteko kontua da. Momentuz ez daukagu inongo finantzaketarik, guztia guk gestionatzen dugu eta, jakina, jendeak laguntzen digulako egiten dugu aurrera. Horrez gain, *A Dar Ba Kar* film laburrak hainbat sari irabazi zituen eta horrek eman digu aukera beste film labur batzuk egin dituztenekin harremana izateko eta gure eskaintza zabaltzeko. Ez da erraza izaten. Film labur batek, zinema-pantaila handi batean emateko, 35 milimetrotan egina egon behar du, baina ez dago film labur askorik formatu horretan. Hori dela eta, film laburrak ikusteko, erakustaldi bereziak antolatzea edo zine-klubetako filmeen aurretik eman behar ditugu; baina, zineklubeko aurrekontua oso txikia izaten da eta euren programazioa horretara mugatzen dute».

'Nongo nor'

Kolaboratzaile bikainak ditu Arkaitzek, Potxo argitalzuloaren lanak, esaterako. Jon Aiastuiren *Nongo Nor* lana argitaratu zuen. Behin baino gehiagotan irabazi ditu literatura sariak eta *Nongo Nor* bere lan onenen bilduma da. Berarena da ere *Hamaika bizitza du gizonak... baina bat bizitzekoa eta berori bakarra*. Big Lie-k ere gauza bera egiten du: bestela aukera gutxi izango lituzke kultura eskaintza bidea zabaltzeko, modu alternatiboan.

Big Lie-ren katalogoa

FANZINEAK

- Napartheid Etorkinak + ale atzeratuak. 300 pezeta.
- Big Lie 1.zenbakia 100 pezeta.
- Gezur Handia (Big Lie-ren 2. zenbakia) 100 pezeta.
- Cretino (Fanzine Madrildarra) 400 pezeta.
- Burdinkako (Ale atzeratuak) 300 pezeta.

KOMIKIAK

- Luis Duran-en *Solsticio*. 275 pezeta.
- Luis Duran-en *El Vuelo del caracol*. 395 pezeta.
- Pernan Goñi-en *Aingeru baltza*. 150 pezeta.

FILM LABURRAK

- *A dar ba kar*. Zuzendaria: Koldo Almandoz. Urtea: 1999. Formatua: 35mm, VHS.
- *Razielen itzulera*. Zuzendaria: Koldo Almandoz. Urtea: 1998. Formatua: 16mm, VHS.
- *Nora hoa, Bixente?* . Zuzendaria: Aitor Arregi. Urtea: 2.000. Formatua: VHS.
- *Capicci* . Zuzendaria: Jon Serrano, Iñaki. Urtea: 2000. Formatua: 8mm, VHS.

MUSIKA TALDEAK

- Golpe de Estado. Punk doinuak lantzen dituen talde oñatiarra.
- Dj Kir rin. 'Galactic Techno man' deitzen diote oñatiarra.

EDITORIALAK

- Potxo argitalzuloa: Jon Aiastuiren *Nongo nor* poesia liburua atera zuen. Prezioa: 150 pezeta.

ELASTIKOAK

- Napartheid. 2.000 pezeta (M, L, XL).

Herriko lankidea

Oñatiarrak dira Big Lie-ren kolaboratzaile gehienak. Luis Duran, esaterako, Madrilen bizi den komikigilea da. Bereak dira *Solsticio, Barco Pirata, Perry Masón, Mancurso Comics* eta *El vuelo del Caracol* komikiak. Ibai Garaik ere egin izan du lanik Big Lie-k banatzen dituen komikietan, eta, horrez gain, Hies Ekimenaren *Soo Bitxo* komikia ere sortu zuen.

Baina, atxabaltar bat ere badago komikilari taldean: Mikel Arroiabe. Bestalde, Pernan Goñik ilustrazio eta kartel asko egin ditu, eta Potxo argitalzuloarekin *Aingeru Baltza* ere egin zuen Oñatin egin ohi den korpuseko prozesioaren gainean.

Guztiek dute ironia eta salaketa abiapuntu; azken batean, errealitatea islatzeko bidea da komikigintza eta espresiobide hau ezagutzeko aukera paregabea da Big Lie-ri esker banatzen diren argitalpenak.

MARIJO DEOGRACIAS

Zinema | 'Hilarri'

'Hilarri' film laburra, Oscarretarako bidean

Manu Gomez zinema zuzendariaren estraineko lanak lehen saria jaso du. Bilboko Zinebi lehiaketak ematen duen 'Euskal zinemaren saria' irabazi zuen joan den zapatuan. «Ez nuen espero horrelakorik, lehia handia zegoelako. Ezustekoa izan da niretzat», azaldu zigun zuzendari gazteak.

Sari horri esker, Holliwood-eko zinema jaialdira iritsi daiteke *Hilarri*. Izan ere, A mailako lehiaketa da Bilbokoa, eta Oscarretako film laburren jaialdira maila horretako saridunak baino ezin dira aurkeztu.

Bilboko 42. jaialdian 1.000 bat zinta jaso zituzten, baina ehun baino ez ziren lehiaketarako aukeratu, tartean Maider Egües eta bere amak, Marga Ergialdek, eta Ian MacGregor gazteak antzezten duten filma. Film horren haria, gainera, Manuk berak eta Aitor Mantxola oñatiarrak idatzi zuten.

Zazpi minutu, mutuak

7 minutuko amodiozko istorioa da *Hilarri*. Gudu garaian erizain eta soldadu baten arteko istorio hunkigarria kontatzen du Manuk. Baina, oso modu berezian: soinuak garrantzi handia duen munduan, hitzik gabeko istorioa egin du.

Filmaketa

Debagoieneko bi paraje ezagunetan filmatu zen *Hilarri*: Eskoriatzako Apotzaga auzoko hilerrian eta Oñatiko Zañartu auzoko eskola zaharrean, hain zuzen ere. Bi egunetan filmatu zen, martxoan. Horretarako, Antonio Hernandez, *Lisboa* filmeko zuzendaria, izan zuen lagun, besteak beste.

Madrilen bizi da aspalditxo Manu, zinemarako zaletasunak bultzatuta. Beste batzuen artean, Pablo Llorcaren *Todas hieren* eta Daniel Galparsororen *A Ciegas* filmetan ere lan egin du. Berak dioenez, «Euskal Herrian ez dago zinema industria egonkorrik, baina egon zitekeen. Oso tekniko onak ditugu, baina industria Madrilen dago».

Aste honetan telebistarako lan batean hasi da buru-belarri, Madrilen bertan. Hala ere, Manuk bere asmoak ditu gogoan oraindik ere: film luze bat idaztea: «asteburuetan haria idazten aritzen naiz; berriz ere, istorio intimista izango da».

MARIJO DEOGRACIAS


Manu Gomez, eskuinaldean, ***Hilarri*** **fimeko aktoreekin.** MARIJO DEOGRACIAS

Abesbatza | Avileseko lehiaketa

Oñatiarrak, bikain

Oñatiko Ganbara abesbatza txapeldunorde izan da Avilesko XVII. Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan. Abenduaren 2an jokatu zen finala Asturiasko El Leon de Oro, Muskizko Carpe Diem eta Oñatiko Ganbara abesbatzen artean.

Esteban Urtzelaik zuzentzen du abesbatza eta hiru kanporaketa gainditu behar izan ditu finalera iritsi aurretik. Azkenengo egunean lau obra eskaini zituzten: derrigorrezkoa, hau da, abesbatzaren jatorrizko lurraldekoa *(Sorginen dantza)*, Espainiako errepertorio klasikokoa eta aukera librekoa. Tarte horretan *Se equivocó la paloma* abestu zuten taldeko 16 kideek.

300.000 pezeta eman diote eta abenduaren 17an Ganbarako kideek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Oñatiko parrokian.

AINTZANE IRIZAR

Kronika

Musika: Pedrotxo preso mondragoetarraren aldeko punk jaialdia

Punkak bizirik dirau Arrasaten

Taldeak: **Kañeria 13, Txapelpunk, Heriotza** eta **RIP**.
Non: **Arrasateko Kiroldegian.**
Noiz: **Abenduak 2, zapatua.**
Iraupena: **Gaueko 22,30etatik goizaldeko 3rak arte.**
Zenbat jende: **Kiroldegia bete samar. 1.500 pertsona inguru.**



Karlos, RIPeko abeslaria. IKOR KOTX

Pedro Guridi arrasatearrak 20 urte bete ditu espetxean, aspalditik kalean egon behar zuen arren. Bere omenez, eta beste askoren egoera salatzeko, kontzertu berezia antolatu zuten Arrasateko Senideak eta AABBek. Psikosia hedatu zen, eta, konturatu orduko, aurrez salgai zeuden sarrera gehienak berehala agortu ziren. Ez da harritzekoa!

Lehenbizi Kañeria 13 taldeak jo zuen; punkak herrian oraindik bizirik dirauen adibideetako bat da talde hau. Iraganeko punk doinuen eta egungo joera *gitarrero*agoen arteko kantuak jorratzen dituen boskote honek emanaldi laburra, baina txukuna, eskaini zuen. Horrez gain, bi kantutan jasotako kolaborazioek, hots, Cicatriz-eko Natxo zenaren anaia eta Karlos Mahomarenak, are gehiago biribildu zuten hauen eskaintza.

Etenaldiaren ondoren, Txapelpunk talde berria taularatu zen. Etsaiak-eko Iñigitok sortutako talde honek dagoeneko Gor disketxearekin lan bat atera du, eta hantxe aurkeztu zuten. Iñigitorekin RIP taldeko Yul, Des-Kontrol-eko Magu eta Oreretako Honako Putzua ® taldeko bateria jotzailea aritu ziren. Hauek ezagutzeko irrika zegoen, eta beraien bigarren kontzertua izanda ere, txukun aritu ziren, baina ez zituzten gau hartako ikusle hotzak bereganatzerik lortu. Hala ere, jai giroko punk-rocka eskaini ziguten, sinplea eta zuzena, agian amorru edo indar handiagoaren falta duena, eta plazaratutako hitzek salaketa eta parranda uztartzen dituzte, inola ere burua apurtu gabe.


Jarraian, 90eko hamarkada erdialdean desagertutako Heriotza taldearen txanda iritsi zen. Eskoriatza zein Arrasateko partaideak gogor hasi ziren, eta hala jarraitu zuten emanaldi osoan, soinuak kalte handia egin bazien ere. Hasi bezain laster, jende ugari elkartu zen aurrealdean eta beraien lehen laneko zein, bereziki, *Amets Hutsa* izeneko disko biribileko kantuak gogoratzeko parada izan genuen. Horrez gain, *perla* bat: Errasti gitarristaren talde ohiaren, Eskoria-Tzaren, kantu bat, hain zuzen. Talde hau EHn hardcorearen aitzindarietako baten izan zen. Tamalez, erakutsitako gogo eta indarren emaitza zeharo kaltetu zuen soinu traketsak. Ea beste emanaldirik ematen duten!!

RIP hasi bezain pronto lepo, baina hotz samar, zegoen kiroldegi zaharra zeharo eraldatu zen. Jendeak aurrera egin zuen eta taldekideek ikusle guztiak zituzten aurrez aurre. Beraiek dioten bezalaxe, taldearen hitzek ez dute gaurkotasunik galdu, eta hala da, *Presos, Revolución, Escoria, Policía no, Última generación, Terrorismo policial* eta beste horrenbeste entzunez gero. Ikusle guztiak zora-zora eginda. Jendea saltoka, guztiak abesten... Gainera, taldekideak azkenaldian baino gogorrago eta finago ibili ziren, Mahoma barne. Ordu luze bat, eta jendeak gehiago nahi zuen. *En California no hay guardia civil, Lepoan hartu eta segi aurrera,* eta bukatzeko, *Mondra*, jakina. Gehientsuenok urte batzuk gazteago izan ginen gau hartan eta gaztetxoenek beraien ametsetako bat bete zuten, ziur.

IKER BARANDIARAN

Nire aukera

Juan Martin Elexpuru
Idazlea



Bat hartu behar eta, horrenbesteren artean, Jon Miranderen *Haur Besoetakoa* aukeratu dut. 1959an idatzi zuen arren, 1972a arte ez zen argitaratu. Irakurri nuenean 20 urte inguru nituen eta liburuak duen gaiak erakarri ninduen, berritzailea zelako eta ordura arteko parametroekin hausten zuelako. Euskal literaturan liburu klabea izan da. Neskatila gazte batek bere aita pontekoarekin izandako harremanak orduko moralarentzako nahiko aldrebesak ziren eta sasoirako pedofilia arantzatsua izan arren, xamurtasun eta errealitate handiarekin idatzia dago. Gaztelaniaz ere nekez argitaratuko zen eta euskaldun fededun sasoian kaleratzeak ere ematen dio xarmantasuna.

'HAUR BESOETAKOA'
Jon Mirande



IBAN ARANTZABAL

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA / *Umeendako*



NIRI EZ ZAIT FUTBOLA GUSTATZEN
ANDONI EGAÑA, MIKEL VALVERDE
Elkarlanean

"Niri ez zait futbola gustatzen" esatea ez da batere erraza bizi garen munduan. 8 urtetik aurrerako umeendako liburua da, eta zera kontatzen da: aita eta mutikoa. Aita futbolzale amorratua da, baina semeari ez zaio futbola batere gustatzen. Zozokeria iruditzen zaio gauza biribil baten atzetik antxintxika ibiltzea. Ipuin horretako mutikoari sugandilak, txalburuak eta zomorroak gustatzen zaizkio. Eta zer?... Ilustrazio txukun eta maketazio zainduarekin Durangoko Azokarako aurkeztu dute liburua.

DISKOA / *Askoren artean. CD bikoitza*



ELKARTASUN EGUNA
Senideak
CD bikoitza
3.500pta

Maiatzaren 6an, Elkartasun Egunean, zuzenean grabatutako CD bikoitza aurkeztu du Senideak-ek. Gainera, disko hauetan bertan ageri dena ez da berriketa: 40 talde eta hainbat estilo; hala nola, ska, reggaea, rocka, bluesa, punka, kantautoreak, trikia... Euskal Herrikoak dira gehienak; kanpokoek, ordea, badute lekurik: Dixebra (Asturias), Arpioni (Italia), Gallus (Eskozia), Fun People eta Get Animal (giro anglosaxoniarrekoak), Mokoka (Paris), Ñaco Goñi eta Fe de Erratas (Madril)...

EGUTEGIA / *Mahai gainekoa*



ARGIAREN EGUTEGIA
Argia astekaria
365 orrialde
850 pta

Bista-bistan dauden Gabonetarako opari ezinbestekoa da etxe askotan. Informazio, entretenigarri, zerbitzu eta umorez osatutako formularekin sekulako arrakasta lortu du egutegiak. Eguneroko orritxoetan eta izen handiko kolaboratzaileetan dago produktu horren aberastasuna. Euskaldunon almanakean euskal izendegia, urteurrenak, santutegia, osasuna, eguzkia eta ilargia, errezetak, musika, historia, desagertzear dauden kulturak, literatura, euskal toreroak... eta, horrez gain, beste hamaika kontu.



Abendua: 7-15

Edu Mendibil

Antzerkia

BERGARA> Kukubiltxo taldearen *Txirrikiz* antzezlana datorren domekan, hilak 17, udal pilotalekuan, 18:00etan.

ELORRIO> Pepa Diaz Mecoren *Pepadasola* antzezlana datorren egubakoitzean, hilak 15, Arriola aretoan, 22:30ean.

Erakusketak

GATZAGA> Gatz Museoaren neguko ordutegia: astebukaeretan eta jaiegunetan egunero lau bisita egingo dira: goizez, 11:30ean eta 12:30ean, eta arratsaldez, 16:00etan eta 17:00etan. Astebarruan taldeei zuzendutako bisitak izango dira. Informazioa eskatu eta erreserbak egiteko telefonoak hauek dira: 943 71 67 46 eta 943 71 47 92.

BERGARA> Julian Jimenez eta **Juan Domenech**. Egurrekin egindako irudiak eta olioak Nahikari tabernan.

OÑATI> Iñaki Jauregialtzo Jaltzoren zeramika lanak Urrintxo tabernan.

Musika

ARRASATE> Sergei Voitenko errusiarraren akordeoi kontzertua eguenean, hilak 7, San Juan Batailatzailearen parrokian, 20:00etan.

> **Eguberriko kontzertua** hilaren 13 eta 15ean, Arrasate Musikaleko areto nagusian, 18:30ean.

> ***La tabernera del puerto*** zarzuela hilaren 16 eta 17an, Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai Arrasateko Zabaleta lurrindegian eta Monte tabernan, eta Bergarako Guria tabernan, 2.000 pezetatan, txarteldegian 2.500.

ANTZUOLA> Bergarako Musika Eskolako ikasleen emanaldia, hilaren 22, zinema aretoan, 19:00etan.

BERGARA> Nuevo Catecismo Catolico, Vincent Von Reverb eta **Brigada Kriminal** taldeak eguenean, hilak 7, gaztetxean, 22:30ean.

> **Pablo** eta **Koldo** disko jartzaileak eguenean, hilak 7, egubakoitzean, hilak 8, **Zana**, **Moto** eta **Orlando**, 01:30ean; eta zapatuan, hilak 9, **Gorka** eta **Chusso**, gauerdian.

> **The Hellacopters** eta **The Hives** taldeak egubakoitzean, hilak 8, Jam aretoan, 22:30ean. 2.500 pezeta.

> **Musika Eskolako** ikasleen kontzertua datorren egubakoitzean, hilak 15, udal pilotalekuan, 19:00etan. Doan.

> **Errenteria Musikal** ganbara-orkestraren kontzertua hilaren 16an, Santa Marina elizan, 19:30ean.

ESKORIATZA> Flitter, MPB eta Klineks taldeen kontzertua abenduaren 16ra atzeratu da. Aipatutako kontzertua pilotalekuan izango da, 22:30ean.

EIBAR> Igelaren Banda taldearen kontzertua domekan, hilak 10, Portaleako areto nagusian, 19:00etan. 500 pezeta.

Lehiaketak

ANTZUOLA> Antzuolako Udaletxean fresko-mural bat pintatzeko lehiaketa. Epaimahaiak 500.000 pezetako sari bakarra emango du. Lanak hilaren 11 arte eraman ahal izango dira. Argibideak Antzuolako Udaletxean edo 943 76 62 46 telefono zenbakian.

ARRASATE> XIV. Arrasate Lehiaketak: ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Muga-eguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.

>**Komiki ez sexisten IV. lehiaketa** deitu du Arrasateko udaleko Emakume Sailak, Gazteria eta Euskara sailen laguntzarekin. Gaia librea izango da eta nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute. Lanak aurkezteko epea 2001eko uztailaren 20an bukatuko da. Emaitzak irailaren 28a baino lehen iragarriko dira. Lehen saria 100.000 pezetakoa izango da. Beste hainbat sari ere banatuko dira. Argibide gehiago Arrasateko Udalean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

BERGARA> Amodiozko gutunen IX. Lehiaketa, Jardun elkarteak deituta. 1986an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Lanak ezin izango dira bi orrialde baino luzeagoak izan. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da. Argibideak 943 76 08 19 edo 943 76 36 61 telefono zenbakietan.

Ikastaroak

ARRASATE> Goi mailako taila ikastaroa eskaintzen du Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Abenduaren 11n hasiko da. Izena emateko deitu ondoko telefono zenbakietara: 943 79 40 79 (Felix) eta 943 79 77 57 (Jose Mari).

BERGARA> Euskara suspertzaile ikastaroa, Jardunek eta Bergarako Udalak antolatuta, aisialdi taldeko partaideentzat, eta euskaran eta aisialdian interesaturik daudenentzat. Eskolak urtarrilaren 13, 20 eta 27an eta otsailaren 3an izango dira Bergarako Udal Euskaltegian. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.

> **Erretzen lagatzeko ikastaroa**, Bergarako Udalak antolatuta, urtarrilaren 16tik otsailaren 20ra. Sei orduko ikastaroa izango da eta martitzenero ordubeteko saioak egingo dira. Hiru talde antolatu dira: 15:30-16:30; 16:45-17:45; eta 18:00-19:00. Ikastaroa Minbiziaren Aurkako Elkarteak emango du. Izen-ematea (1.000 pezeta) Udaleko Gizarte Zerbitzuan urtarrilaren 5a arte. Plaza mugatuak. Argibide gehiago 943 77 91 65 telefono zenbakian.

Deiak

ARETXABALETA> Odol ateraldiak abenduaren 11, 12 eta 18an, Osasun Etxean, 16:30etik 20:00etara.

> **Erlantz Urtasu** idazlearen *Euskara eta historia* liburuaren aurkezpena astelehenean, hilak 11, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi euskara elkarteak antolatuta.

> ***Jesus Peña, idazle atxabaltarra. 1914-1937*** liburuaren aurkezpena eguenean, hilak 14, udaletxe zaharrean, 20:00etan. Udaleko kultura batzordeak eta Loramendi euskara elkarteak antolatuta.

ARRASATE> Palestinaren inguruko mintegi-lantegia, Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, hilaren 16an, Jaizale elkartean, 10:00etatik 14:00etara. Izen-ematea Jaizale elkartean edo 943 34 04 04 telefono zenbakian.

>**Atapuerca**ko aztarnategira bisitaldi gidatua abenduaren



ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETA. Hauspoz Euskal Herriko Akordeoilari elkarteak antolatu duen Arrasateko akordeoi lehiaketa egubakoitzean, hilak 8, amaituko da, goizeko 11,30etan Amaia antzokian egingo den ekitaldiarekin. Aurreko urtean bezala, aurten ere Gipuzkoako zein nazioarteko akordeoilari bikainenak elkartu dira Arrasaten. Gazteei zuzendutako XIII. jaialdia izan da egunotan eta, era berean, Gipuzkoako XXI. lehiaketa eta VIII. nazioarteko lehiaketak ere jokatzen ari dira. Aurtengoan 200 akordeoilari inguruk parte hartu dute. Egubakoitzeko saioan sarituak jakinaraziko dira eta, gainera, pieza onenak entzun ahal izango dira.

XIV. Arrasate Lehiaketak

Arrasate Euskaldun Dezagun-ek antolatuta

Komikia, ipuina, poesia, bertsopaperak, euskalki grabazioak eta irrati-erreportajea.
Muga-eguna: otsailaren 5a.

15ean, Helduen Eskolak antolatuta. Goizez, gizon-emakumeon ondare izendatutako aztarnategi garrantzitsuari bisita, eta arratsaldez, Burgosen, Espainiako monumentu gotiko ederrenetako bat ikusiko dute. Autobus txartela eta sarrerak 1.000 pezetan salgai. Argibideak eta izen-ematea: 943 77 11 72.

>AEK-k deitutako kontzentrazioa abenduaren 15ean, Herriko Plazan, 19:30ean.

>Josemari Velez de Mendizabal idazlearen *Bizi izan juat* liburuaren aurkezpena. eguenean, hilak 14, Monterronen 19:00etan.

BERGARA> AEK-k deitutako kontzentrazioa hilaren 15ean, *AEK aurrera, euskara aurrera, erasorik ez* lelopean, San Martin plazan, 19:30ean.

>EH. Batasuna prozesuko lehen eztabaida-batzarra. "Eraiki nahi dugun herritarren batasuna" txostenaren lehen zatia aztertuko da: *Erakunde berriaren nortasun ikurrak*. Eguaztenean, hilak 13, Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan, 19:00etan.

>Pol-Poleko Mendia Bizirik taldeak, hilaren 16rako, Mendejur (Araba) inguruko ekosistemaren hegaztiak ikusteko irteera antolatu du. Asier Sarasua ornitologo ezaguna joango da, laguntzeko. Parte hartu nahi duten guztiak Pol-Poleko bulegoan elkartuko dira goizeko 8:30etan. Ez dago aurrez izena eman beharrik.

>Mus txapelketa zapatuan, hilak 9, Elosuko Elurmendi elkartean, 16:00etan. Izen-ematea: 2.000 pezeta.

ESKORIATZA> Elkartasun astea, Mondragon Unibertsitateak antolatuta. Astelehenean, hilak 11, *Praktikak Latinoamerikan*, Irakasle Eskolan, 19:00etan. Martitzenean, hilak 12, *Txiapas, itxaropenaren herria* (diapositibak eta azalpenak), 11:30ean eta 19:00etan. Eguaztenean, hilak 13, *Mundukide elkartruke programaren balorazioa eta 2001. urteko aldarrikapena*, 19:00etan. Azkenik, eguenean, hilak 14, *Bidezko merkataritza: produktu dastaketa eta salmenta*, 19:00etan; eta jarraian, Txanba kantautorearen emanaldia.

OÑATI> Oñati Hirugarren Munduarekin sentsibilizazio kanpaina abenduaren 12tik 16ra bitartean. Argazki erakusketa gaztelekuan, ipuin kontalaria hilaren 16an udaletxe aurrean, eta egun berean, gobernuz kanpoko erakundeen eta Oñatiko

Zinema

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Jóvenes prodigiosos
Eguena: 19:00, 21:30.
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.

O brother!
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena (ikuslearen eguna): 19:00, 21:30.

BERGARA / NOVEDADES

Jóvenes prodigiosos
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:30.

El exorcista
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena (ikuslearen eguna): 19:30.

Desayuno con diamantes
Eguena, hilak 14 (Forum Cinematographe taldeak antolatuta): 21:30.

OÑATI / SANTANA

Morir (o no)
Eguena, hilak 7, zine-kluba: 20:00.

The kid
Egubakoitza: 19:30, 22:30.

El exorcista
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Fantasía 2000
Igandea: 17:00.

EIBAR

UNZAGA

Los ángeles de Charlie
Eguena: 19:30, 22:15.
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 17:00, 19:30, 22:15.

RIALTO

Lo que la verdad esconde
Eguena: 19:30, 22:15.
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

El exorcista
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

Space cowboys
Domeka: 16:30.

Wonderland
Eguena, hilak 14: 21:30.

ELORRIO / ARRIOLA

Jóvenes prodigiosos
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

Pokemon
Domeka: 17:00.

El bola
Astelehena: 20:00.

Los sin nombre
Eguena, hilak 14, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA / BAZTARTXO

Jóvenes prodigiosos
Eguena: 19:30, 22:00.

Evasión en la granja
Egubakoitza: 17:00.
Domeka: 17:00.

El arte de la guerra
Egubakoitza: 19:30, 22:00.
Zapatua: 22:00.

The Skulls
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

DURANGO / ZUGAZA

Karramarroaren uhartea
(Marrazki bizidunak)
Eguenetik domeka arte: 16:30.

O brother!
Eguena eta egubakoitza: 19:00, 22:00.

Cero en conducta
Zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena: 19:00, 22:00.

GASTEIZ

GURIDI

Dinosaurios
Eguena: 17:30, 20:00, 22:45.
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30

Lo que la verdad esconde
Eguena: 17:00, 19:45, 22:30.
Egubakoitza: 17:00. 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua:17:00. 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:00, 19:45, 22:30.

Manuelita
(Marrazki bizidunak)
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehena: 17:30.

Persiguiendo a Betty
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Otoño en Nueva York
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitza: 17:30. 20:00. 22:30, 01:00.
Zapatua:17:30. 20:00. 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

El grinch
Eguena: 17:30, 22:30.
Egubakoitza:17:30. 20:30. 22:30, 01:00.
Zapatua:17:30. 20:30. 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Los ángeles de Charlie
Eguena: 18:00, 20:00, 22:30.
Egubakoitza:16:30, 18:30, 20:30. 22:30, 01:00.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.
domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena: 18:00, 20:00, 22:30.

Cabeza borradora
Eguena, hilak 14: 19:45.

MIKELDI ZINEMAK

Besos para todos
Eguena: 16:00. 18:00, 20:30. 22:45.
Egubakoitza:16:00, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:16:00. 18:00, 20:30. 22:45.
Astelehena: 17:15, 20:00, 22:30.

Lo que la verdad esconde
Eguena: 17:15. 20:00, 22:45.
Egubakoitza:17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka:17:15. 20:00, 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

El grinch
Eguena: 16:00. 18:00, 20:30. 22:45.
Egubakoitza:16:00, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:16:00. 18:00, 20:30. 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Dinosaurios
Eguena: 16:30. 18:30, 20:30. 22:45.
Egubakoitza:16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:16:30. 18:30, 20:30. 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Scary movie
Eguena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30. 22:45, 01.15.
Zapatua: 16:30. 18:30, 20:30. 22:45, 01.15.
Domeka:16:30. 18:30, 20:30. 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Otoño en Nueva York
Eguena: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:30. 22:45, 01.15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30. 22:45, 01.15.
Domeka:16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Banpiro txikia
Eguenetik domeka arte: 16:15, 18:30.
Astelehena: 17:15, 20:00.

Poseidos
Eguena: 20:30, 22:45.
Egubakoitza: 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 20:30, 22:45.
Astelehena: 22:30.

Harry, un amigo que os quiere
Eguena: 17:15, 20:00, 22:45
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena: 17:15, 20:00, 22:30.

Ed Gein
Eguena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Egubakoitza:16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehena: 17:15, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMA

El pequeño vampiro
Eguenetik domekara arte: 16:15. 20:00.
Astelehena: 17:30, 20:00.

La comunidad
Eguenetik domeka arte: 20:00, 22:30.
Astelehena: 22:30.

SAMANIEGO

Marco Antonio
(Marrazki bizidunak euskaraz)
Eguenetik astelehenera: 17:00.

Animal factory
Eguenetik astelehenera: 19:45, 22:30.

Scary movie
Eguenetik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

La isla del cangrejo
(Marrazki bizidunak)
Eguenetik astelehenera: 17:00.

You're the one
Eguenetik astelehenera: 19:45, 22:30.

Los ángeles de Charlie
Eguenetik astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

AZUL

La perdición de los hombres
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena: 18:30, 21:00.

Luna papa
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00.
Astelehena: 21:00.

Don
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00.
Domeka: 22:30.
Astelehena: 18:30.



DESAYUNO CON DIAMANTES

Zuzendaria: Blake Edwards.
Aktoreak: Audrey Hepburn, George Peppard. > 13 urte
Truman Capote idazlearen eleberrian oinarritutako filma zuzendu zuen Blake Edwardsek 1961ean. Orain, Forum Cinematographe taldeari esker, jatorrizko bertsioan ikusteko aukera.

EL EXORCISTA

Zuzendaria: William Friedkin.
Aktoreak: Linda Blair, Jason Miller, Ellen Burstyn. > 18 urte
1973. urtean filmatutako *El exorcista* arrakastatsuaren bertsio berria. Neska gazte bat (Linda Blair) ondoezik dago eta bere amak apaiz bati deituko dio. Exortzismoa egiteko ordua da...

JÓVENES PRODIGIOSOS

Zuzendaria: Curtis Hanson.
Aktoreak: Michael Douglas, Tobey Maguire, Frances McDormand. > 13 urte
Curtis Hansonek sekulako arrakasta lortu zuen *L.A. Confidential* filmari esker. *Grady Tripp* (Michael Douglas) aspaldian ezer publikatu ez duen idazlea dugu. Unibertsitateko literatur lehiaketa hurbiltzean bera eta bere ikasleetako baten artean lehia piztuko da...

O BROTHER!

Zuzendaria: Joel Coen.
Aktoreak: George Clooney, John Turturro. > 13 urte
Coen anaien azken filma 1930eko hamarkadako Estatu Batuetan girotuta dago, Homeroren *Odisea* klasikoan oinarriturik. Mississippi sakonean hiru presok kartzelatik ihes egitea lortuko dute eta euretako batek urteetan gordetako altxorra aurkitu nahiko du. Bidean pertsonaia benetan bitxiak aurkituko dituzte..

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxea salgai. 649 93 07 32.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai. 649 93 07 32.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andresen. 943 79 99 26. Eguerdian edo gauean deitu.

Arrasate. Etxebizitza salgai Sailuente plazan. 943 77 19 47.

Arrasate. Erdialdean etxe bat erosiko nuke. 943 79 85 08.

Arrasate. Erguin auzoan etxebizitza salgai. 943 77 12 77.

